

LUIS ANGEL LOPEZ ARANZADI

GREGORIAN KANTUAN ADITUA

Kantu gregoriarrari buruz bi hitzaldi emango ditu heldu den astean Luis Angel Lopez Aranzadik Iruñean, Nafar Ateneoak antolatutako ekitaldietan. Bizitza osoan kantu honekin harremana izan ondoren, Leireko monasterioan ari da orain nafarra bere ezagutzak eguneratzen.

«Gregoriarrak sosegua zabaltzen du»

Hamabost urte zituela hasi zuen Lopez Aranzadik gregoriar kantuarekin bere harremana, Estibalizko (Araba) eta Santo Domingo de Silos (Burgos) monasterioetan. Ondoren, ikasketak sakondu zituen Buenos Airesen eta Solesmesko (Frantzia) monasterioan, eta organo jole gisa aritu da Argentinan azken hogei urte hauetan. Euskal Herrian Leireko monasterioan soilik entzun daitekeen kantu honetaz pasioz hitz egiten du, duen garrantzia erreinbindatzeko.

■ **Hamar mendetan zehar gorabehera franko izan ondoren, joan den mendean Solesmesko monasterioan egin zen gregoriar kantua berreskuratzeko ahalegin nagusia, gaur egungo egitura estu markatu zuena. Zergatik Solesmesen?**


San Benitoren ordena Iraultzaz geroztik ezabatua zegoen Frantzia, eta joan den mendean Solesmes monasterioan Prosper Guerangerrek ekin zion ordena berrezartzeari. Erromantizismoaren garaiko joera zen Erdi Aroko guztia berrezartzea, eta bera ahalegindu zen ez bakarrik ordena, baita liturgia ere berreskuratzen, eta horren barruan sartzen zen gregoriar kantua. Erdi Aroko izkribuetan oinarritu ziren Gueranger eta bere laguntzaileak, eta, beraz, berreskurapena sakona izan zen.

■ **Errepertorio asko galdua zen ordurako?**

Gregoriar kantuaren beherakada XIV. mendean hasi zen, baina areagotu egin zen izugarri XVI. mendetik aurrera. Orduan atara zen Medicisen Edizioan kendu egin zitzaizkion ezaugarri asko, garaiko gustuetarako egokiagoa egin nahian. Gero, polifoniarekin, musika barroko eta klasikoaren urrezko urteekin, ahaztu eta zokoratu egin zen ia erabat, erlijio ofizioetan oso gutxi abesten zelako, eta polifonia nagusitu zen.

■ **Nola laburbil daitezke gregoriar kantuaren ezaugarriak?**

Gregoriarra, hasteko eta behin, kantua da, ez musika hutsa. Hitzak laguntzen dituen musika da, berez. Bigarrenik, baditu neurri eta modu berezkoak, beste edozein musikak ez dituenak, eta hori dela-eta Eliza Katolikoak gregoriarra kantu ofizial izendatu du. Bukatzeko, esan daiteke gregoriarra jada VIII. mendean zegoen kantu bat dela, baina musika-notazioa ez duten izkribuetan idatzia zegoena. X. eta XII. mendeetan hasi zen idazten, Erdi Aroko eskuizkribuetan, baina ez dira partiturak gaur egungoak bezalakoak, baizik eta zeinu musikalak abeslariak laguntzeko, haiek buruz zekiten-eta erreper-



Nafarroan gregoriar musika kantatuko duen abesbatza osatzea da Lopez Aranzadiren gogoa.

JOXE LACALLE

torio osoa. Azentuak ziren hasieran, eta gero sartu ziren lerroak, klabeak...

■ **Gregoriarrarekin batera bazi-ren beste dialekto musikal batzuk —anbrosiarra, galikanoa, mozarabiarra...— jatorrizko eliza hartan. Zergatik desagertu ziren?**

Garai hartan ez zegoen orain dagoen batasuna, ezta Eliza barruan ere. Fedea bat zen, baina errito ezberdin asko zeuden. Orduan indarrean zegoen Milango erritua —anbrosiarra—, errito hispaniarra —mozarabiarra—, Frantzia zegoen errito galikanoa, eta Italiako hegoaldean zegoen errito beneventiarra. Bakoitza bazuen bere bilduma musikal, eta Erroman bertan ere bazegoen errito berezkoa. Egiturak berdintsuak ziren, baina musikak ziren desberdinak. Zergatik nagusitu zen gregoriarra? Inperio karolingioak, une batean, ezarri egin zuelako bere lurraldeetan nagusia zen musika. Gregoriarrari deitzen ahalko genion franko-erromatarra, bie-

tatik baduelako zerbait. Saiatu ziren gero errepertorio hau ezartzen Erroman, baina ez zuten onartu. Beraz, San Gregorioren izena —ospe handiko gizona Erdi Aroan— jarri zioten, eta Erromak onartu egin zuen. Hortik aurrera Europa osora zabaldu zen, eta hori da gaur egun ezagutzen dugun gregoriar musika-bilduma. Geroztik sortu dira melodia berriak, baina zentzu zabalean bakarrik esan daitezke gregoriarrak direla. Adibidez, denok ezagutzen dugu Angelisen Meza, Salve Regina... bada, horiek melodia berriak dira, XII. mendearen ondokoak.

■ **Eta nola sor daitezke interpretazio berriak, korronte ezberdinak, musikak jada kodize batean zehaztuta badaude?**

Ez daukagulako garaiko doinuen lekukotasunik. Beraz, ez dakigu nola irakurtzen eta nola abesten zituzten kantak. Batzuek uste dute mende haietako musikak bazuela neurri bat, baina beste batzuek interpretazio laxoagoa zela uste dute. Ba-

dira interpretazioa hitzaren neurrian oinarritu daitekeela diotenak, eta badira —gaur egungo korronte nagusia, semio-logikoa deitzen dena— eskuizkribuetan dagoen zeinu bakoitza-zen azterketa arretatsuan oinarritzen direnak. Korronte bakoitza badu abesteko modu bat.

■ **Zergatik gelditu da gregoriarra monasterioetan zokoratuta?**

Eder askoa izan arren, oso zaila delako. Testu latinoak behar du derrigor, eta ulertzen ez denez zokoratuta gelditu da. Vatikanoko II. Kontzilioan beste abestiei atek zabaldu zitzaizkienez sortu ziren orain mezetan entzun daitezkeen kantu herrikoiak.

■ **Erlijosoa izan behar da ondo abesteko?**

Ez, baina ez da ahaztu behar otoi bat dela, eta, beraz, hobekien abesteko duena frailea izango dela, otoi egitea bere ofizioa delako.

■ **Eta nola azal daitezke fraileen artean horrelako abots bikainen aurkitzea?**

Galdera interesgarria da, nekez uler daitezkeelako fraile talde batean denek ondo abestea. Denarik dago —belarria ondo egin daukatenak, dohai hori ez dutenak—, baina euren ofizioa hau denez, fraidea, monasteriora sartzen denetik, hazitu egiten da gregoriar kantua bere oititzaren ohiko mintzaira izan dadin.

■ **Zer moduzkoa da Leiren abesten den gregoriarraren maila?**

Ondo edo gaizki abesteko nahikoa da fraide talde txukun bat edukitzea, besteak ere animatzeko. Leiren badira batzuk nahiko ondo egiten dutenak, eta tekniko onargarria da. Ez dute, jakina, Silosko Santo Domingoko maila, baina...

■ **Gregoriarraren azken grabaketek izan duten arrakasta erraz ulertzen duzue adituok?**

Gregoriarrak, ulertu ala ez ulertu, mezu xume bat zabaltzen du: bakea, sosegua... Beraz, nahiz eta jendea munduaren zurrumbillean sartua izan, oraindik behar du, arnasa hartzeko airea behar dugun bezala, lasaitasuna eta patxada. Hor dago gregoriarraren arrakastaren arrazoi bat. Horretaz gain, bada jendea grabaketa hauen bidez fedearan deia jaso duena.

■ **Gregoriarra abesten duten talde gutxi daude, hala ere.**

Nik falta dut Iruñean gregoriar talde bat, mugimendua. Duela urte batzuk izan ziren hemen ikastaro batzuk, enpresa handi batek bultzatuta, baina orain ez dago ezer ez: zokoratuta eta ahaztuta dago. Hori da hitzaldien helburuetako bat: konpaktoen mezua jaso dutenei gregoriarraren berri ematea, jakin dezaten zer den, ezagut dezaten bere teknika eta bere historia.

Alberto Barandiaran

IRUÑEA

Bertso saio batek emanen dio abiapena Irulegi Irratiaren aurteng kanpainari

■ **Ekitaldiak sei**

bertsolari

bilduko ditu

Donibane-Garazi

Vauban zinema

aretoan

L. Fourcade / Baiona

URTERO bezala, Irulegi Irratiak dirua biltzeko kanpa bultzatuko du Nafarroa Belean, eta bihar arratsalde iraganen den bertso saio abiapena emanen dio ekitaldian. Sei bertsolari ospetuek gonbidatu dituzte elkarrekin. Arratsaldeko hiruretan Vauban zinema aretoan hasen den saioan bertsolari hauek hartuko dute parte: Al Mendiluze, Xabier Euzki, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Sebastian Lizaso eta Aitor Mari Peñagarikanok. Gertakariak ez dira aspaldidatutako agertu Ipar Euskal Herrian saio batean, eta gai ematen Irulegi Irratiko berriak izanen da, hots, Pantxo Hargai. Aurretik erran daiteke saio umoretsua izango dela segurki.

Irulegi Irratiak kanpa antolatzen du dirua biltzeko eta bi astez dozenaka lagun zeharkatuko dituzte proba iziako herri guztiak, erantzen leen laguntza biltzeko asmoa. Arrats honetan, abiapena zuzenean emanen du Donapaleuko inauterietan bertso berri emanen, eta animazio bereziak jarriko dira datorren asteetan. X

Mirot egindako gidioa pantailara eramango du Pere Portabellak

Efe / Bartzelona

JOAN MIROK 1973an, baino hamar urte lehenago eskuz idatzitako zazpi orduko gidio argitaragabe batean narranturik laburmetraia zuzenduko duela iragarri du Pere Portabellak zinemagile katalanak. Mirot egindako luzeak egiten zituen Mont-Roigeko (Tarragona) masia edo baserria eta bere inguruak dira gidioaren nagusia, eta etxe horretan egingo ditu filmaketa lanak Pere Portabellak. Artistaren inguruko «mikrokosmosa» islatu nahi duela adierazi du zinemagileak.

«Laburmetraiari zer irten emango diodan erabakitako ko negoziatioak hasiko dira aurki», adierazi du Portabellak. «Neuk ekoiztuko dut 20 minutu inguruko laburmetraia da, telebistan erabiltzeko egina». Dena den, ez du zehaztu noiz hasiko dituzten filmaketa lanak. Gidoia antolatara emateko asmoa ere badu Portabellak. Cave Canis aldizkarian irakurri izango da heldu den astean.

«Nahiz eta jendea munduaren zurrumbillean sartua izan, oraindik behar du lasaitasuna eta patxada, arnasa hartzeko airea behar dugun bezala. Hor dago gregoriarraren arrakastaren arrazoi bat»